


Berrigara



Ingurua zabaltzen

Emakumeak elkarrekin komunikatzeko gunea sortuko du udalak



ARANZADI IKASTOLA

Eusko Jauraritzak Herri Onurako Irakaskuntza Kooperatiba izendatua

**Gurekin hazi, hezi eta
bizi euskaraz**
Haur hezkuntzatik Batxilergora



**Matrikulazio epea
otsailaren
5etik 16ra**



HITZALDIAK

**Tokia: Bergarako
Kultura Etxea
Ordua: 18:30ean**

- Urtarrilaren 29a, astelehena:
**“Hezitzeko gure modua
sexista al da?”**
Hizlaria: Beatriz Ugarte
Baloreen heziketan aditua,
hezkidetzan espezializatua.
- Urtarrilaren 31, asteazkena:
“Si tu hijo te pide un libro”
Hizlaria: Lolo Rico
Idazlea, telebista
programetako gidoiari eta
zuzendaria.
- Otsailaren 6a, asteartea:
“Educa, no pegues”
Hizlaria: Nati Gutierrez
Psikologoa eta familia
terapeuta, adin txikikoan
arazoetan aditua.
- Otsailaren 8a, osteguna:
**“Helduen eta adolezenteen
arteko harremana”**
Hizlaria: Iñaki Martinez
Adolezentiako arazoez,
guraso eta irakasleen
orientazioan aditua.

Laguntzailea:
Begarako Udala
Ongizate Zerbitzua





Ametsak eta amesgaiztoak

Maite Aristegi / EHNEko idazkaria

Aupa Jose Mari: hau hartu orduko 44 urte lerdent beteko dituzenez, hasteko, zorionik beroenak. Zulo ozpintsu eta mingarri horretan 21 urte beteta, barru zein kanpoaldetik halako duintasun eta sendotasunez agertzeak ere ez du meritu makala eta!

Eta azken aldia izango ei da, zeure urtebetetzea eta eroan zintuzteneko urtemuga zeu barik gogoratuko ditugula. Urtean dihardugu kontu horrekin, izan ere, oraindio ere kostatu egiten zaigu sinistea epaileak justiziatik hain urrin ibili daitezkeenik, lege zorrotzaren zigor luzeaz gain, inolako justifikaziorik gabe bost urteko gain-kalbarioa bete duzula.

Baina tira, amesgaiztoak izango du bukaera eta laster herrian izango zaitugu. Badakit honezkero argazki zahar eta berrien arteko mila konparaketa eginda, herriko txokoek izandako aldaketek jabetzen zarela. Baina, nola azaldu, galdutako ondare guztia? Hasteko,

egoera berria ondo janez ospatzea amestuko duzu. Ba, azkar ibili beharko duzu. Gure itsasoetako bizitza ia hiltze-ar dago, zalantza, zein desagertuko lehenago: arraina ala arrantzalea. Eta batzuren aberaste nahi zoroaren erruz behiak ere zoratu egin ditugunez, beren haragirik goxoen ere debekatzear. Ura pasatu eta gero, presaginan. Baina, lasai, honetan behintzat orain seguru dakigu ez dagoela gaizdunik salgai eta.

«Jose Mari, badakit honezkero argazki zahar eta berrien arteko mila konparaketa eginda, herriko txokoek izandako aldaketek jabetzen zarela. Baina, nola azaldu, galdutako ondare guztia?»

Hobe horrelako disparaterik gertatu aurretik, oraindio hazkuntzan baimenduta dauden hainbat antibiotiko edota arriskudun transgeniko behingoz debekatuko balituzte. Ondorioak agertzen hasiko dira buruari hazka egiten, baina orduan alferrik. Hori bai, beti egongo dira hortik ere negozioa egingo dutenak. Ustel usaina hortik ere nabari, ezta?

Eta mendi aldera igotzen zarenean, a zelako ezusteak! Tontor gehienetan izugarrizko telefono antenak, Araba aldera sekulako gurutze iladak (penitentzia gehiago merezi ete?), iparralderuntz, autopistaren obra-txikitze erraldioak... eta gainera, norbaitek esango dizu abiadura handiko sator-suge horrek zertuk irentsiko lituzkeen! Eta, ai, norberari ukitzen ez dionean, denok, ezer gertatuko ez balitz bezala. Ai, Jose Mari, zatoz azkar, bestela ez duzu ezer ezagutuko-eta! Eta zentzuna eta idealismo indartsua behar ditugu amesgaiztoa amets bihurtzeko.<

barruan



Ion Lopez

Udaleko hezitzailea

«Denok izaten dugu, noiz edo noiz, komunikatzeko beharra»

6.



Alfonso Alonso

Udaltzainburua

«Uniformia jantzi neban lehenengo egunian sekulako lotsia pasau neban»

19.



Edurne Azuara

Aktorea

«Aukeratzen banaute, ilusio handiz arituko naiz 'Hasiberriak' telesaillean»

25.

hi, gazte!



BEKAK

Irakasleak.

Hezkuntza eta Kulturako Ministerioa. Gaztelaniaz mintzatzeko laguntzaileak maila ertaineko ikastetxeetan. 465 lagunendako tokia. Epea: urtarrilak 30. **2001eko ikerketa beka.** Zintzo Mintzo Euskalzaileen Elkarte. Erdi edo goi mailako tituludunak. Urretxu eta Zumarragako hizkuntza eta kultura ondarearen informazioa jasotzeko. Epea: otsailak 28.

JARDUERAK

Oteiza. Kutxa.

Jorge Oteizaren sorkuntza prozesuaren gaineko erakusketa Kursaaileko Kubo aretoan. 2000ko abenduaren 16tik 2001eko otsailaren 28a arte.

IKASTAROAK

Telebista.

SAROB. Aktore-interpretazioa telebistan. Epea: otsailak 19.

Zinema.

SAROB. Zinema-zuzendaritzako ikastaroa. Epea: otsailak 5.

SARIAK

Kartel lehiaketa.

Eibarko Udala. Edozein gai landu daiteke eta honako testu hau izango du: Aratosteak 2001 Eibarren.

Epea: urtarrilak 26

Logotipo lehiaketa.

Huarteko Udala. Huarteko Gaztetxearen eta Kultura Etxearen logotipoak sortzeko ideien lehiaketa. Epea: urtarrilak 31.

LAN-ESKAITZAK

Zerbitzu askotariko enplegatua.

Esako Udala (Nafarroa). Eskola ziurtagiria edo baliokidea. Epea: otsailak 12.

Ingeniaritza teknikoa.

Iruñeko Udala. Herri-Lanetarako Ingeniari Teknikoa; Diplomadunak. Epea: urtarrilak 31.

Euskara Teknikaria.

Iruñeko Udala. Diplomadunak. Epea: urtarrilak 31.

KARNETAK

Nazioarteko Aterpekeide, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zator Gazte Informazio Gunera.

INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA: Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregiko panelak
Telefonoa: 943 77 91 57
E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net
Osteguna eta ostirala: 16:00-20:00
Larunbata: 09:30-13:30

OHARRA. Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizueke Gazte Informazio Gunera igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazteei nahiz probintzia guztikoei informazioa zabaltzeko. Mila esker.

bertako berbak


Juan Martin Elexpuru

Barregarrikerixa

Irrigarrikerixa.

– Eztozu baiña barregarrikerixa ori ingo orraitio.

– Basarritarrak eta alkarrekin erderaz; eztoz sekula barregarrikerixa aundixaorik ikusi.



hau giroa!

San Juan auzoan jasotako datuak

Luis Mari Agirre	Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
Abenduak 18, eguna	12 °C	2 °C	7,1 l/m ²
Abenduak 19, eguakitza	11 °C	6 °C	18,2 l/m ²
Abenduak 20, zapatua	13 °C	7 °C	0,3 l/m ²
Abenduak 21, domeka	12 °C	2 °C	- l/m ²
Abenduak 22, astelehena	14 °C	5 °C	- l/m ²
Abenduak 23, martitzena	19 °C	9 °C	29,8 l/m ²
Abenduak 24, eguaztena	16 °C	10 °C	0,8 l/m ²

mezak

Santa Marina

Domekak: 11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.
Lanegunak: 19:30.

San Pedro

Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.

Osintxu

Domekak: 11:30.
Zapatuak: 19:00.

Elosu

Domekak: 10:00.

Ubera

Domekak: 10:30.

San Juan

Domekak: 11:00.

Basalگو

Domekak: 13:00.

San Prudentzio

Domekak: 10:30.

URTE-MEZAK

Santa Marina

Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.

San Pedro

Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

urbanoa

San Lorenzo/San Jandik irteerak

07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Mugertza, Zubieta, San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga aurrean), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta/Olabarretetik irteerak

07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

kontuan hartu...

FARMAZIAK

EGUAKITZA 26:
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87
ZAPATUA 27:
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
DOMEKA 28:
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
ASTELEHENA 29:
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63
MARTITZENA 30:
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15
EGUAZTENA 31:
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
EGUENA 1:
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87

OGIA

DOMEKA 28 Konde

TELEFONOAK

OSASUNA / LARRIALDIAK
Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
Bergarako udaltzaingoa 943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa 943 76 62 46
Ertzaintza 943 76 53 40
Osasun Etxea 943 76 24 40
Asepeyo 943 76 16 43
Pakea 943 76 13 49
Angiozarko medikua 943 78 90 27
Antzuolako medikua 943 76 62 23
Odol emaleak 943 76 16 24
GARRAIOAK
Taxiak 943 76 19 50

UDALA

Bergarako udaletxea 943 77 91 00
Antzuolako udaletxea 943 76 62 46
Udal Artxiboa 943 77 91 32
Igerilekuak 943 76 20 51
Kultur Etxea 943 77 91 58
Liburutegia 943 77 91 62
Kirolegia 943 76 56 41
Mizpirualde Egoitza 943 76 13 68
BESTELAKOAK
Epaitegia 943 76 14 92
Erregistroa 943 76 13 15
Jardun 943 76 36 61
Idolaz 943 76 65 08
Jubilatuena Etxea. Bergara 943 76 21 40
Antzuolako jubilatuena elk. 943 76 62 71
Postetxea 943 76 26 85
Bedelkar 943 76 04 68
Akulu AEK 943 76 05 18
Udal euskaltegia 943 76 44 53
Bergarako notaritza 943 76 10 73

ZOKETAK

MARIAREN LAGUNDIA
Ikas-bidaiaren alde:
bi lagunendako afaria 3.761 zkia.
ETXEBERRIA ERLAJUTEGIA
200.000 pezetako balea 0.102 zkia.
100.000 pezetako balea 8.269 zkia.

zorionak!



Leire Martin
26an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Gorka Martin
26an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Maddi Txinturreta
28an 6 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Maite.



Borja Pueyo
1ean 7 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak, Jon eta Josu.



Judith Lizarralde
29an 7 urte.
Urte askotarako!
Unai eta etxeko denak.



Itsaso Goenaga
30ean 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Koldo Iñarra
27an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Peio Alfaro
30ean 8 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Jokin.



Joanes Ruiz de Egin
30ean 2 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Alex Astiazaran
1ean 2 urte.
Urte askotarako!
Aita-amak eta Iñigo.



Jon Cotillas
31n 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Edurne Sotil
26an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Asier Odriozola
27an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Martin Casado
29an 78 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Unai Irizar
29an 5 urte.
Urte askotarako!
Josu, Leire eta etxekoak.



Ander Gallastegi
26an 4 urte.
Urte askotarako!
Aita eta ama.



Ander Lasa
28an 8 hilabete.
Zorionak!
Etxekoak.



Mireia Arietaleanizbeaskoa
31n urtebete. Zorionak eta muxu handi bat! Etxekoak.



Ibon Etxabari
29an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Mikel Uribealzo
26an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Aritz, Xabi, Paulo eta Nerea.



Amaia Rodriguez
28an 14 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak, eta batez ere...



Idurre Salegi
14an urtebete.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.



Ander Urriolabeitia
1ean 12 urte.
Zorionak gure maiora-razkoari! Etxekoak.



Karlos Lopez
31n 33 urte.
Urte askotarako!
Ama.

jardunen agenda



■ **Olinpiadak:** 6.maila, DBH 1 eta DBH 2kook parte hartu dezakezue. Domikero pare bat orduan ondo pasatzeko aukera paregabea Bergaran bertan: hockeya, herri kirolak... Apuntatzeko azken eguna urtarrilaren 29a da.

■ **Bergara ezagutzen lehiaketa:** otsailaren 2an, eguakitza, hasiko da. Lehenengo jardunaldiko lehiakideak: Perretxikoak jardunian eta Hik Galdeu taldeak izango dira. Zatozte ikustera! Eguakitzero, 19:30ean Kartzela Zaharrean.

■ **Kartzelako aisialdia:** Bihar, hilak 27, Gasteizera patinatzerara. Domekan, Detektibe jolasa eta txokolatada.

*Hurrengo alean,
otsailaren 2tik
otsailaren 8ra
bitartekoen zorion agurrak
argitaratuko ditugu.*

ARRANO

Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA

- × Ezkontzak
- × Bataioak
- × Jaunartzeak
- × Enpresa bazkariak eta lagunartekoak
- × 150 lagunendako jangela



PARKINA ETA TERRAZA
BASTER-ALDE
J A T E T X E A

Galartza auzoa • ARETXABAETA
Tf.: 943 79 24 58

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate, 1. 943 76 02 57

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, unxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09


Mujika
goseologia

Berezitasunak:
Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak
Artekalea 3 BERGARA 943 76 10 34

JON LOPEZ

Udaleko hezitzailea

«Guztiok izaten dugu, inoiz, komunikatzeko beharra»



Jon Lopez udaleko hezitzailea da eta bera arduatu da gunea antolatzeaz.

Udaleko Gizarte Zerbitzuak emakumeen harreman ingurua zabaltzeko gunea sortu nahi du. Kanpo eta barne faktoreengatik, emakumezkoak gizonezkoak baino inguru murriztagoa du, komunikatzeko esparru txikiagoa, hain zuzen ere. Emakumeak batu eta kezka trukatzeko lekua izatea du helburu guneak.

G. Emakumeen harreman ingurua zabaltzeko gunea sortu nahi duzue. Zernolako gunea?

E. Elkarrekin komunikatzeko beharra sentitzen duten emakumeak batzeko esparrua izango da. Hitz egiteko tokia. Hasteko, izena ematen duten emakume bakoitzarekin solasaldi bat egingo dugu. Horrela, bakoitzaren beharrak zeintzuk diren jakiteko aukera izango dugu. Gunea zelan ulertzen duten jakingo dugu, eta baita zelako gunea nahi duten ere.

Dinamizatzaile batek egingo ditu elkarrizketa horiek, eta hortik ateratako beharrei erantzuna emateko gunea sortuko da. Baina, bai beharrak, bai erantzunak ere, emakumeek eurek sortutakoak izango dira, euren ideietatik sortutakoak, hain zuzen ere.

G. Zergatik sortu nahi duzue gune hori?

E. Beharra dagoela ikusten dugulako. Gizonak beti izan du kalera irteteko joera handiagoa; gizonaren presentzia tabernetan, kirol elkarteetan edo bestelako guzietan normala izan da beti. Hala ere, emakumezkoek, batez ere lehengo emakumeek, etxean geratzeko joera handiagoa izan dute, etxeko lanekin lotuta egon delako. Hori horrela, adinean gora doazenean, etxetik

kanpoko harremanak egitea zailagoa da, eta harreman inguru murriztagoa dute.

G. Helburua hortaz?

E. Etortzera animatzen diren emakumeei irtenbide bat ematea. Ez dakit lagun koadrila sortuko den, baina euren kezkez mintzatzeko tokia izango dute.

G. Zein ekintza egingo dira?

E. Eurek planteatzen dituztenak. Dinamizatzaile bat egongo da ildoak markatzeko, baina osterantzean, eurek planteatzen dituztenak.

G. Zelan egongo da antolatuta gunea?

E. Astean behin batuko dira; eurek zehaztutako egun eta orduan. Hiru hilabete jardungo dute. Horren ondoren, eta gauzak ondo joan badira, posible da aurrera jarraitzea eta beste talde batzuk sortzea. Gainera, esan bezala, oso gune irekia da; edozein arrazoiengatik inguru harreman murrizta duen edozeinek parte har dezake. Dagoeneko, hasi da jendea udalera deitzen, eta otsaila erdi aldera elkarriketekin hasiko gara. Martxoan gunearekin hasteko moduan egongo gara.

G. Badago elkarrekin komunikatzeko beharra sentitzen duen emakumearen profilik?

E. Profilik ez dago, baina guztietan bi ezaugarri errepikatzen dira: emakume izatea eta adinekoa. Emakume esan dut, gizonezkoetan baino gehiago gertatzen delako bakardadea. Gizonek ere sentitzen dute, baina emakumezkoek gehiago. Eta adinekoa esan dudanean, seme-alabak etxetik joan diren emakumeen kasua adierazi nahi izan dut. Gazteagoak edo edadetuagoak izan daitezke, baina aisialdirako denbora gehiago izaten dute seme-alaba barik, eta orduan hasten dira bakardadea nabaritzen. Bestetik, harremanzako beharra herrian berriak diren emakumeek ere izaten dute. Dena dela, komunikatzeko beharra guztiok izaten dugu behin edo behin eta hainbat faktoreengatik, gainera. Norberaren izaerak ere zerikusia du.

«Gizonek ere bakardadea sentitzen dute, baina emakumeen kasuan, harreman ingurua zabaltzeko beharra handiagoa da»

Bideberriko bihurgunea zabaltzeko proiektua idaztea onartu du udalak

Gainera, Bideberriko errepideak bi noranzko izango ditu

Gobernu batzordeko ki-deek onartu dituzte, dagoeneko, Bideberri-Zubietako urbanizazio proiektua idazteko baldintzak. Bideberriko bihurgunea zabaldu eta bi noranzko errepidea bihurtu nahi du udalak. Honen guztiaren helburua da zirkulazioa arintzea.



Gaur egun oso bihurgune itxia da Bideberri eta Zubieta artekoa.

Bideberri-Zubieta eremua urbanizatzeko proiektu teknikoa idazteko baldintzak onartu ditu udalak. Litzitazio oinarria 4.900.000 pezetakoa da, eta adjudikazioa egiten zaion enpresa proiektua idazteaz arduratu-ko da.

Udalak komenigarri ikusi du Infernukua taberna pareko bihurgunea zabaldu eta bi noranzko errepidea egitea. Helburua da Bolura joateko beste bide bat iza-

tea, horrela, Artekalea autoz arintzeko.

Aipatutako asmo hori aspaldi dute udaleko arduradunek Hirigintza zinegotzi Joxean Etxeberriak esandakoaren arabera. Gobernu Batzordeak eman du lehenengo urratsa, proiektua idazteko baldintza plegua onartzea, hain zuzen ere.

BIDEBERRI, BI NORANZKOA

Infernukua taberna pareko bihurgune estua zabaltzea da proiektuaren helburuetako bat. Bestea, Bideberriko errepidea bi noranzkoa bihurtzea.

Bi etxe erosi ditu udalak Zubietan, horiek bota eta bihurgune handiagoa egiteko. Infernukua pareko lehe-

nengo bi etxeak, hain zuzen ere. Dagoeneko eraikin bakoitzeko hainbat etxebizitza erosita daude. Etxeberriak esandakoaren arabera, gainerakoak proiektu teknikoa egin bitartean erosiko dira, izan ere, jabeekin harremanetan ari dira.

Bihurgunea zabaltzeko etxeak botatzeaz gain, agian, ibaiari zatitxoa ere kenduko zaio. Bihurgunean dauden pibote zurietatik atzera dagoen zatia, gutxi gorabehera. Bestalde, Bideberriko errepidea bi noranzkoa izatea dago aurrez ikusita. Fraiskozuri aldera joatekoa bata, orain bezala, eta bestea, Fraiskozuritik, zuzen, Zubietara joatekoa. Etxeberriaren arabera, horrek Bolura joateko aukera ekarriko luke, eta baita Artekalea autoz arintzeko ere, gaur egun, Bolura bidean auto ugari igarotzen da eta.

 **DEBA GARAIA**
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telesforo Aranzadi, 2-behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

Etxebizitza berriak Antzuola erdialdean

- Aparteko lekuan eta ingururik ederrenera begira
- Primerako materialekin jasoak



BANKINTER

%4,95 etik aurrera lehen 3 urteetan

*Irekiera komisioa: %0,25. 35 urte bitartearaino

Euribor-a + **%0,50** garbia, ondoren*



PINTURAS BERGARA S.L.

- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- APAINKETARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK
- ERROTULOAK

Aranerrika 32 behea. BERGARA. Telefonoa: 943 76 10 65. Faxe: 943 76 11 40.

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...

Irizar pasealekua 2 behea
☎ 943 76 59 54 BERGARA

Hilerriko tasen inguruko oharra kaleratu du udalak

Aseguru etxe batek Bergaran hileta zerbitzuak berarekin aseguratuta dituzten hainbat herritarri gutun bat bidali die azken egunetan. Gutunean tarifak asko igo behar dituztela adierazi dute aseguru etxeok. Arrazoia zera da, kanposantuan lurrian hilobiratzeko tokirik ez dagoenez, nitxoetan hobiratzeko dituztela, eta horrek askoz gastu handiagoa duela, hau da, nitxoan hilobiratzea lurrian baino garestiagoa dela.

Gutunaren ondorioz, jende ugari hurbildu da udalera kanposantuaren inguruan galdetzera. Hori horrela izanik, 1997tik 2001era arteko tasak zeintzuk diren



Aseguru etxe baten tarifa igoerak sortu du kezka.

ARTXIBDA

eta urte batetik bestera izan duten igoeraren portzentajea aditzera eman nahi izan du udalak herritarren zalantzak argitzeko asmoz.

Bestalde, tasa horiekin kanposantuko mantenu gastuen %34 finantzatzen dela jakinarazten du Bergaroko Udalak.

Ingeles irakasleak, sarituak

San Martin Agirre eta Antzuolako ikaste-txeetako ingeles irakasleek saria jaso dute Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailetik, lau eta zortzi urte arteko ikasleekin aurrera eramaten ari diren ingeles eskolengatik. Adin horretako haurrei ingelesa irakastea hautazkoa da.

Batasuna prozesuaren bigarren zatia hasiko da

Lehenengo eztabaida zatia amaituta, bigarren zatiari ekingo diote, hau da, ildo politikoari. Bi batzar egingo dira: lehenengoa, hilaren 24an (egungo egoera politiko, ekonomiko eta soziala Euskal Herrian), eta bigarrena, hilaren 31n (fase horretarako ildo politikoa). Biak Miguel Altuna institutuan izango dira 19:00etan.

Azken bost urteetako kanposantuko tasak

Kopuruak pezetatan	1997	97-98	1998	98-99	1999	99-00	2000	00-01	2001
Lurrean	12.970	+%15	14.915	+%10	16.405	+%5	17.225	+%10	18.950
Panteoian	3.400	+%15	3.910	+%10	4.300	+%5	4.515	+%10	4.965
Nitxoan	28.915	+%15	33.250	+%10	36.575	+%5	38.405	+%10	42.245

Irala 3
Telefona:
943 76 48 26

IRRINTZI
kafetegia

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro 8 Tf.: 943 76 27 70 BERGARA

ARREGI

Eraikuntza materialak

Bildegia Tellerian, Labegaraietan.
Tf. 943 76 27 93

AGOITZ tapiz denda

Leizariako San Lorenzo, 25
BERGARA
Tel.: 649 112 675



KORTA-ZAR Txokolategia

Pintxo eta ogitartekoen espezialitatea

Barrenkalea, 16 ☎ 943 76 20 62

ezpeleta Ostalaritzarako ehungintza

Ostalaritza eta egoitzetarako mahai-zapi eta industri-ehunak

San Lorenzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77/Tf. eta faxa: 943 76 17 09

Ertzaintzaren etxe berria Aste Santurako zabalik

Barne Saileko prentsa bulegoaren arabera, Aste Santurako zabalik egongo da Ibargaraiko Ertzaintzaren etxe berria, nahiz eta atzerapenik egon daitekeela gaineratu duten.

Debagoienean bi etxe ditu Ertzaintzak gaur egun: Bergaran bata, eta Arrasaten bestea. Ibargaraiko berria, Debagoieneko komisaria nagusia izango da, baina, oraindik ere, Arrasatekoak jarraituko du.

1999ko urtarrilean hasi ziren etxe berria eraikitzen, Bergarako Udalak eta Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak bi urte lehenago sinatutako hitzarmenaren arabera. Or-



Bergarakoa izango da Debagoieneko komisaria nagusia.

duan adierazi zutenez, obren aurrekontua 650 milioi pezetakoa zen. Bestalde, Arrizuriaga parkea Udalaren esku geratuko zela ere

adostu zuten. Hala ere, Arrizuriaga etxeari emango zaion erabilerari dagokionez, oraindik udalak ez du erabakirik hartu.

Txapa irratian otsaileko programazioa

Ohiko saioez gain, hauek ere egongo dira: eguaztenetan, *Gauerdia Heltzear* magazinea, 22:00etatik 23:00etara. Eguenetan, *The Shop* saioan hip-hop musika, 22:00etatik 23:00etara, eta, egubakoitzetan, bi saio: 15:00etatik 16:00etara *Grosser Corn* elkarrietzeta saioa eta 23:00etatik 00:00etara *Txapa Ingurua* albistegia. Urtarrilaren 31n gaztetxearen gaineko saio berezia egongo da 20:00etatik 21:00etara. Horrez gain, batzarrak Zabalotegi dorreko lokalean egingo direla jakinarazi dute.

MAYA
%50
Aste honetan arropa gehiago ekarriko dugu!

Berrigara

437 zenbakia.
2001eko urtarrilaren 26a.

Irizar jauregia. Barrenkalea 33.
20570 Bergara.
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta elektronikoa:
berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi,
Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publikitate: Uxue Zabaleta.
Harpidetz: Nerea Lazpiur.
Testuen zuzenketak: Sergio Azkarate,
Gari Bragado.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate,
M. Angel Elkorobezibar, Alex Labaien,
Estepan Plazaola.
Komikiak: Unai Azkarate, Oihan Vega,
Usoa Mendikute, Gorka Ortega &
Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre,
Antxon Agirre Sorondo,
Juan Martin Elexpuru, Gorka Ugarte.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk.
(Zubillaga. Oñati).

Azaleko irudia: Berrigara.

Tirada: 5.400 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanena eta
irritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Bergarako
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jauriaritzako
Kultura saila

atrebentzia ezpada

Piropuak jasotzia gustatzen jatzu? Eta esatia?



Josu Agirre

Ez jat gustatzen jasotzia,
gorrittu egitten naiz-eta.
Baiña, botatzia gustatzen
jat. Zelan nagon arabera,
suabiak edo ez hainbeste.



Itziar Olabe

Gustatzen jat, baiña batzuk
ez dira oso atsegiñak.
Baiña, esan ez dittut egitten
lotsia emoten dostalako.



Garikoitz Garitano

Jasotzia gustatzen jat, nahiz
eta gutxi jasotzen dittudan.
Bota be, gutxi botatzen
dittut; batzuetan,
zapatu gabetan-eta...



Saioa Martinez

Zeinek eta zer esaten
dostanan arabera. Baiña, ez
jat gehixegi gustatzen, eta
esan be ez dittut esaten,
lotsatixa naizelako.



Alvaro Arantzabal


Jasotzia gustatzen jat, baiña
botatzia ez jat gustatzen.
Ez jat iñori be bota.




Eli Aranburu

Ez jat gustatzen, bakarrik
etxequak-edo esandakuak
baldin badie. Bestela, ez.
Eta esan, katxondeuan
esaten dittut.

tira biraka oihan vega



Mariaren Lagundia Ikastola



Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza
eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

**Matrikulazio epea
otsailaren 5etik 16ra**



• Irailetik uztailera
bitartean

• Goxotasunez, pausoz
pauso, **bakoitzaren
gaitasunen
garapenean lagunduz**

• Zure beharrei
erantzuteko prest!

• Ordutegia: **egunero
07:30-19:00**



RENAULT

AUKERA EZIN HOBEA



MEGANE RXE 1.6 16v 110CV

Aire girotua, ABS
Aurreko aire-poltsak eta
aldemenetakoak
Aluminiozko hagunak
Pintura metalizatua
SAT irratia
2.150.000 pezeta*
12.921,76 euro*
5 AUTO AUKERAN



MEGANE CLASSIC RXE 1.6 16v 110 CV

Aire girotua, ABS
Aurreko aire-poltsak eta aldemenetakoak
Aluminiozko hagunak
Pintura metalizatua
SAT irratia
2.185.000 pezeta*
13.094,81 euro*
7 AUTO AUKERAN



SCENIC RXI 2.0 16v 140 CV

Aire girotua, ABS
Aurreko aire-poltsak eta
aldemenetakoak
Aluminiozko hagunak
Pintura metalizatua
CD kargagailua
2.675.000 pezeta*
16.077,07 euro*
5 AUTO AUKERAN

Orain, estra guztiak
seriekoak dira
**Bilatu zure
izarra**



CLIO RT 1.9 DIESEL 5 ate

Aurreko aire-poltsak.
Lagunduriko direkzioa
Itxigailu zentralizatua
Kristal-jasogailu elektrikoa
1.550.000 pezeta*
9.315,69 euro*
6 AUTO AUKERAN



LAGUNA RXE 1.9 DCI 105 CV

Klimatizagailua, ABS
Aurreko aire-poltsak eta
aldemenetakoak
Aluminiozko hagunak
Pintura metalizatua
CD kargagailua
Narruzko eserlekuak
3.225.000 pezeta*
19.382,64 euro*
7 AUTO AUKERAN



SCENIC RX4 2.0 16v 140 CV

Klimatizagailua, ABS,
Trakzioa lau gurpiletan
Aurreko aire-poltsak eta
aldemenetakoak
Aluminiozko hagunak
Pintura metalizatua
CD kargagailua
3.325.000 pezeta*
19.382,64 euro*
6 AUTO AUKERAN

*Prever plana barne

MECA

Erakusketa eta tailerra: Amillaga, 5. BERGARA. Tel.: 943 76 40 68

Erakusketa eta tailerra: San Andres auzoa. ARRASATE. Tel.: 943 71 24 72

adituen esanetan

Animaliak etxean

Oro har, kaleko etxe arrunt baten animaliak edukitzearen kontra-koia naiz. Ohikoena, txakurrak eta katuak izaten dira. Ba, animalia hauen kasuak ezberdinak dira erabat.

Katuak ondo moldatzen dira etxe txikietan. Etxea espazio propio bilakatzen dute. Gainera, behin euren toki mugatu horretara egokitu eta ohitzen direnean, ia-ia ezinezkoa izaten da hortik irtetea. Albaitariarengana eramateko ere arazoak izaten dituzte etxean katua dutenek.

Txakurren kasua oso bestelakoa da. Etxeko atea ireki orduko, pozez saltoka hasten dira. Edozein txakurrek kalera, edo hobeto, mendi aldera, irten beharra dauka. Egunean bizpahiru bider ateratzea da komenigarriena, eta kalera atera beharrez, mendira eramanez gero, hobeto. Egunean kilometro mordo egin dezake txakur batek, eta komeni da, gainera.

Txakurkume edo katakume bat etxera ekartzen dugunean, txiki-txikitatik irakatsi behar zaizkio etxe arauak zeintzuk diren. Eginbeharrak egiteko tokia zein den, edo kalera irteterakoan egin behar dituela, bere jantokia zein den... Gainera, oso garrantzitsua da beti ordu berean jaten ematea, adibidez.

Janariaz ari garela, animalien elikadura oso garrantzitsua da. Txakur-
ren kasuan, azpimarra-



JULIO ETXEBERRIA

Albaitaria

«Txakurrak ahalik eta gehien atera behar dira kalera, edo hobeto, mendira. Kilometro asko egin beharra daukate»

erabiltzea ere oso ona izaten da. Urtean pare bat aldiz lozio batekin bainatzea, eta martxo eta azaroa bitartean arkakusoaren kontrako lepokoarekin ibiltzea komeni da.

tzekoa da ez zaiela komeni ez gozoak ezta oilasko eta untxi hezurak ere. Txakurrek diabetesa izateko joera handia dute. Horregatik, ez zaie inoiz gozirik eman behar. Katuei dagokienez, ostera, onena da salgai dauden pentsuak ematea.

Garbitasuna ere kontuan hartu beharrezko alderdia da. Animalia hilean behin garbitzearekin nahikoa eta sobera da. Hala ere, oso komenigarria izaten da txakurrei egunero-egunero eskuila pasatzea. Arkakusoaren kontrako produktuak



Txakur batentzat ez da batere egokia kaleko etxe arrunt bat.

kaleen izenak



70. hamarkadako argazkia.

Espoloia

Espoloia Bidekurutzetatik San Antonioraino doan pasealekua da. 1846an Carlos Uriarte eta Mariano Jose de Lascurain arkitektoek planoak egin zituzten eta hurrengo urtean udalak lursailak erosi edo trukatu egin zituen espoloia egiteko. Urte berean San Antonioko Algodonera lantegia sortu zen. Aurrerago, 1905ean, komunak egin ziren. Udal espedientean azaltzen denaren arabera, 1924an udalak kontzertuetarako kiosko bat egitea agindu zuen. Ematen du Espoloia aisialdirako eta paseatzeko lekua izatea nahi zuela udalak.

Aktetan agertzen da 1927ko maiatzaren 10ean egindako batzarrean orduko alkate zenak, Angel Mugica Muñerzak, Espoloiari "Paseo de Alfonso XIII" izena ipintzea proposatzen duela; horrela, Erregearen koroatzearen 25. urteurrena ohoratzeke. Alkatearen proposamena ontzat eman zen.

Izen hau gutxi erabili zen, 1932an berriz ere aldaketa egon zelako. Orduko alkatearen proposamena onartu zen eta "Pi y Margall" izena jarri zioten. Arraro samarra badirudi ere, badu bere arrazoia. Francisco Pi y Margall XIX. mendeko idazle, abokatu eta politikari bat izan zen. Errepublikako presidente izan zen 1873an, eta errepublika eta federazioaren aldeko ideia politikoak zeuzkan. Dakigunez, gizon ospetsu hau Bergaran bizi izan zen 1856tik 1857ko uztailaren erdira arte.

Gerra garaian, udalbatzarrek izena aldatu zion berriro eta "España pasealekua" jarri zioten. Berriz ere, demokrazia garaia heldu zenean, hasierako izena berreskuratu zen eta ordutik hona Espoloia izena dauka.

Testua: Arantzazu Oregi, Udal artxibozaina
Argazkia: BUAK utzia (Roman Larrañaga fondo)



Laster zutik

Erori eta ia urtebetera hasiko dira Santa Katalina konpontzen

Datorren hilean, otsailean, hasiko dira Santa Katalina ermita eraberritzeko lanak, erori zenetik ia urtebetera. Santa baserriaren alboan dago baseliza hau, Azkarruntz auzoan. Eraberritze lanekin batera, indusketak ere egingo dituzte, aztarnaren bat egon daiteke-eta ermitaren inguruetan. Diputazioa arduratuko da eraberritze eta indusketaz.

Martxoaren 7an erori zen Santa Katalina ermitaren zati handi bat: absidea, eskumaldeko horma eta ermita hain baliotsua egiten duen zurezko zerua, hain zuzen ere.

Ika-mika ugari sortu zuen erorretak. Kapirixok, Debagoieneko kultura ondarea babesteko elkarteak, erakun-

de publikoen utzikeria salatu zuen. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak urteetan izan du ermita hau ondareen behin-behineko zerrendan, eta behin betiko zerrendan sartzea eskatu zuen. Gaur egun, iazko uztailetik, ondare kalifikatuen zerrendan dago Santa Katalina.

Manu Izagirre Diputazioko ondare

teknikariaren esanetan, “duela hamar bat urte bederatzi milioi eman zitzaion Bergarako Udalarari ermita eraberri zezan. Udalak beste bederatzi jarri behar zituen lanok egiteko. Baina, badirudi ez zutela interes handirik, eta pena bada ere, bertan behera geratu zen diru laguntza hura”. Orduan, teiltua apun-



Ugarrixa merenderoa

**Elosuko
bidean
BERGARA
943 76 28 92**



izeder

**ARTE DEKORATIBOKO
ikastaroak**

943 76 71 05. Arruriaga 2

talatu zen, besterik ezean, basiliza eror ez zedin, behintzat. Udaleko Turismoa eta Ondare Historiko-Artistikoa azpibatzordeburu Koldo Pereiraren esanetan, "garai hartan, udalak ezin zuen ezertxo ere egin, ermita ez zegoen eta inoren izenean erregistratuta. Hori beti izan da arazo bat horrelako kasuetan". Orain, auzokide eta Gotzaitegiarekin harremanetan dago udala, eta herriko ermita guztiak bere izenean jarri nahi ditu, basiliza guztien ardua bere gain hartu eta egin beharreko konponketa eta era-berritzeak ere bere gain hartuz.

ERABERRITZEA

Konpontzeko 22 milioi aurrez ikusi ditu Diputazioak. Eraberritze lanak Azkoitia enpresak egingo ditu. Izagirrek BERRIGARARI azaldu dionez, otsailean hasiko dira ermita berritzeko lanak, baina "ikusitako behar zenbat denbora behar den bukatzeko". Lehenik, bide berria egingo da hara joateko. Gero, obra-hondakinak erretiratu dira. Ero-ritako harri eta egurren artean, sailkapen bat egin beharko da, eta ahal den guztia aprobeztatu. Zimenduak ere jarri beharko dizkiote ermitari, eraikina sendotzeko.

AZTARNA BILA

Baina, eraberritzearekin batera, indusketak ere egingo dituzte. Oraindik zehazteke dagoen arren zein arduratuko den indusketa hauetaz, ziurrenik Iñaki Sagartzazu Foru Aldundiko arkeologoa



lazko martxoan absidea, horma bat eta zurezko sabaia erori ziren.

TXEMA CAMARA


izango da arduraduna. Manu Izagirrek azaldutakoaren arabera, indusketa hauek badaezpada ere egin ohi dira. Izan ere, historia luzea duen basiliza dugu Santa Katalinakoa, eta horrelako eraikin baten edo inguruetan aztarna garrantzitsuak aurki daitezke: lurperatzeak, zeramikak...<

Zimenduak jarri beharko dizkiote ermitari, egitura sendotzeko

XV. mendeko basiliza baliotsua

Ermitaren gaineko lehen aipamena 1468. urtekoa da. Estiloa beranduko gotikoa da, eta ezaugarriarik aipagarriena daukan zurezko zerua edo sabaia da. Adituen ustez, Bergarako ermita interesgarriena da. Sabaia zurezkoa, eta lurra, berriz, harrizkoa dauka. Korua ere egurrezkoa da. Hango jaia apirilaren 30ean zen, baina maiatzaren lehenean ospatu ohi zen, meza eta erromeria eginez. Duela 20 urte esan zen meza azken aldiz ermita horretan.

Rizkur



Ileapaindegia
Estetika
Solariuma

Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32

DENA 100etik

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta 3

PISZINETAKO TABERNA

Bokadiloak
Pintxoak
Kazuelitak

Boni Laskurain J/g
Tf. 943 76 53 55



Matxiategi Elektragintza S.L.

ELEKTRIZITATE
MATERIALEN
SALMENTA ETA
INSTALAKUNTZA

Zurradero 8, behea. 943 76 19 94.

ANDUZV

ANDUZU S.L.
Simon Arrieta, 1, 4-C
607 349 043



Garabi zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta
era guztietako kargak

Antropologi erakusketa



Mariaren Lagundia ikastolak **ate irekien eguna** egin zuen joan zen zapa-tuan. Bertan, ikastolako instalazioak ikusteaz gain, giza-kiaren garapenari buruzko erakusketa bat ikusteko aukera ere izan zuten bertaratu ziren guztiek.



Sansebastianak

Bergarako hiru ikastetxeetako haur hezkuntzako umeek, eguakitzean, **danborrada** egin zuten, bakoitzak bere ikastetxean. Gustora asko ibili ziren denak! Argazkian, San Martin ikastetxeokoak.

El Salvadorrerako dirua

Aranzadi ikastolako DBH 4. mailako ikasleak El Salvadorrerako dirua batzen dihardute ikastetxean bertan. **Santa Ageda** egunean batuko duten dirua ere El Salvadorrera bidaliko dute. Helburua, gutxienez, **milioi batera** iristea.



Zorionak, Etxaniz!

Jose Mari Etxaniz bergarar presoak urtarrilaren 28an, domekan, beteko ditu urteak. Bergaratik zorionak eta besarkada bat bidali nahi izan diote bere lagun eta senitartekoei. Zorionak, bada, Jose Mari!

etxalar

kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
943 76 50 68




ARRI

Industri
hornidura

Zubiaurre, 30
Tf. eta faxa: 943 76 19 04.
Sakelakoa: 656 78 64 84.


Sendabelarrak Dietetika



Aukera
biologikoa!

- Prebentzio neurriak osasunari begira.
- Elikagai biologikoak : barazkiak, fruitak, esnea, lekariak...
- Kontsultak
- Sendagile naturista: zirkulazioa, erreuma, kolesterola...
- Pisuaren kontrol pertsonalizatua: koipe eta likidoen neurketarekin.
- Masajista

Irala z/g. 943 76 30 08



Ur-bide

ITURGINTZA

Zubieta, 28-behea
BERGARA
943 76 00 57
630 261 617

SAN MARTIN - IPINTZA - M. ALTUNA

B e r g a r a k o i k a s t e t x e p u b l i k o a k



EGITARAUA

- Erakusketak
- Jokoak
- Dantzak
- Antzezlanak
- Makillaje tailerra
- Txapa tailerra
- Maskarak
- Bideoak
- Informatika
- Pailazoak

San Martin Agirre herri ikastetxean ATEAK ZABALIK

**Eskola kontseiluak ikastetxea bisitatzera
gonbidatzen zaitu**

Otsailaren 3an 16:30etik 19:30era

B. Laskurain, 25
Tel. 943 76 21 47



EGITARAUA

- Bilera informatiboa
- Ikastetxea bisitatu

Ipintza institutuan BILERA INFORMATIBOA

DBHko ikasleei (12-16 urte) eta gurasoei zuzendua

**Eskola kontseiluak ikastetxea bisitatzera
gonbidatzen zaitu**

Otsailaren 5ean, 19:00etan

B. Laskurain, 19
Tel. 943 76 31 42



Ixaun Jatetxea

Elosu (Bergara) 943 85 32 50



Orain, sagardotegia ere badugu!

Deitu, eta gorde lekua!



- 55 lagunendako lekua
- 2 upel
- Labeldun okela
- Sagardotegiko menua
- Untxia eta arkumea enkarguz



batasuna prozesua

LAUGARREN BATZARRA:

"Ildo politikoa" txostenaren bigarren zatia, hau da: Fase horretarako Ildo politikoa.

Laugarren batzar honetan, bigarreanean bezala, ildo politikorako aurkezten diren hiru ponentzien artean bat aukeratu beharko dugu.

Urtarrilaren 3 In, asteazkena, arratsaldeko 7etan, Elementaleko aretoan.

Txostena eskuratu nahi baduzu, Arrano tabernan eska dezakezu.

Bergarako Batasuna Batzordea.

euskalherrikoezkertiarren
batasuna

ongi etorriak
batasunaren
prozesura

Datorren otsailian hamasei urte beteko dira Alfonso udaltzain dala. Ordudanik da, gaiñera, udaltzainburu. Alfonsok 42 urte dauzka eta ezkondata dago. Jendiarekin harremanetan egotia asko gustatzen ei jako.

Alfonso Alonso

Isun asko jartzen dituzten horretarikua zara?

Ez, ni ez naiz-eta kalia asko ibiltzen. Urtian, guztira, 3.000 bat isun jartzen ditugu.

Kexa asko jasotzen dituzue isunak dirala-eta?

Bai, asko; aparkatzeko tokirik ez dagoelako, batez be.

Noiz bukatuko da Bergaran aparkatzeko dagoen arazua?

Sekula be ez; gaiñera, gero eta okerragora doa.

Zure lanian zer da gehixen gustatzen jatzuna?

Jendiarekin harremanetan egotia.

Eta gutxien?

Ba, jendiarekin sekulako liskarrak egoten dirala batzuetan.

Uniformiak morbua emoten ei dau...

Ez dot uste; akordatzen naiz lehenengo egunian sekulako lotsia pasau nebala.

Eta inposatzen dau?

Bai, hori bai.

Udaltzain batek anekdota asko dauka?

Bai; behin traban zeguan auto batera jun eta leihua iriki zebenian, bolanterik ez zeguala konturau nintzan; ingelesa zan.

Denpora librian zer egittia gustatzen jatzu?

Mendira jutia, pasiatzia.

Ze mendi gustatzen jatzu?

Urbia asko gustatzen jat.

Kirolzalia zara?

Praktikau, ez dot askorik praktikatzen.

Ze kirol gustatzen jatzu ikusteko?

Pelotia, batez be.

Biñakako txapelketia zeñek irabaziko dau?

Alustiza-Beloki bikote gogorra da.

Irakurtzeko ohiturarik badaukazu?

Bai, asko irakurtzen dot.

Liburu bat?

Tiempo de silencio, Martin Santosena.

Asteburu baterako plan ideal bat?

Errioxara jun, mendixan buelta egin, eta lagunekin arratsaldea bertan pasau.

Sagardotegirako planik?

Ez daukat bape ohiturarik. Koadrillakuak juten dira, baiña neri ez jat gustatzen.

Zelan definittuko ziñuke zeure burua?

Oso lasaixa naiz, pazientzia haundixa daukat.

Zerk jartzen zaittu haserre?

Norbaittek emondako hitza betetzen ez dabenian, asko haserretzen naiz.

Eta pozez saltoka?

Nere inguruko norbaiti gauza haundiren bat pasatziak.

Bukatzeko, amets bat?

Loterixan nahikua diru tokau, eta txapela airian botatzia.




Larkano

KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK

Barrenkalea 15-17. BERGARA.
Tf. 943 76 25 03

POL-POL
Taberna

943 76 07 78



EDEL
TAPIZDENDA

Etzerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

REMENTERIA
Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale 6 Tf.: 943 76 13 29

Aldoka
Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrial

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 666 517 295

Bergararrak aurreko tokietan Debagoieneko kirol zirkuituan Zapatuan urteko onenak saritu zituzten Elgetan

Debagoieneko udaleta-ko kirol zerbitzuek iaz antolatutako zirkuituaren sari banaketa egin zen zapatuan Elgetako pilotalekuan. Ordezkarri bergarrek ez zuten txapelik eskuratu azken sailkapenean, baina euren maila erakutsi zuten urtean jokaturako pala, tenis, frontenis eta squash txapelketetan.

Frontenisko sailkapenean Xabier Albisuak eta Patxi Vallejosek osatutako bikotea bigarren geratu zen, Candido Hurtado eta Jose Izquierdo arrasatearren atzetik. Guztira, 27 bikote izan dira lehian Aretxabaletan, Arrasaten eta Bergaran jokaturako txapelketetan, eta berdintasuna izan da nagusi. Vallejos eta Albisua Aretxabaletan eta bikote onenek urte bukaeran jokaturako masterrean nagusitu ziren, baina azkenean, arrasatearrek eraman zuten txapela, zapatuan Elgetan jokaturako partiduan bergarrei irabazi ostean. Izan ere, bi bikoteak 43na punturekin zeuden sailkapenean, Karmelo Barcala eta Alejo Garcia laugarren izan ziren eta



Hauek izan dira herriko onenak Debagoieneko kirol zirkuituan.

Igor eta Joseba Cusi anaiak seigarren.

Palako azken sailkapenean ere Jon Alberdi bergararra eta Iñigo Agirrebeña eibartarra bigarren postuarekin konformatu behar izan ziren. Martin eta Oier Urigoitia elgoibartarrek irabazi zuten, 41 puntu eskuratu. Alberdik eta Agirrebeñak 38 puntu lortu dituzte eta hirugarren Jaime Acedo eta Asier Muruamendiak izan dira, 37 punturekin. Debagoieneko pala zirkuituan 18 bikotek hartu dute parte.

Tenisean, Eneko Ugalde bergararra bigarren izan zen, Jose Caballeroren atze-

tik. Ugaldek erregulartasun handia erakutsi du urte osoan: Bergaran zortzi puntu lortu zituen, Oñatin bederatzita eta San Migelko txapelketa irabazi egin zuen, 12 puntu eskuratu. Masterrean, berriz, laugarren izan

**Kirol zirkuitua
otsailean
hasiko da.
Tenis txapelketa
Bergarako
Kiroldegian
jokatuko da**

genuen (zortzi puntu). Jorge Aranes ere bikain aritu zen eta azkenean hirugarren izan zen, 36 punturekin. Bergarako txapelketa irabazi zuen eta masterrean finalera heldu zen Aranes. Jokaturako hiru txapelketetan, guztira, 40 jokalaririk izan dira lehian.

Azkenik, squasheko sailkapenean, Garikoitz Ibarzabalek sei puntuko aldea aterazion bigarren izan zen Santos Aranbururi.

2001ko ZIRKUITUA

Era berean, zapatuan, aurtengo zirkuituaren aurkezpena egin zen. Otsaileko hirugarren astean tenis, pala, squash eta frontenis txapelketak jokatu dira. Bergaran tenis txapelketa izango da, otsailetik aurrera, fronteniseko Angiozarren jokatuko da, maiatzetik uztaile-ra, eta palakoa irailerako iragarri da. Palako lehenbiziko txapelketa Elgetan jokatuko da otsailetik aurrera eta squash eta fronteniseko Oñatin izango dira. Txapelketetan parte hartzeko interesa dutenek argibideak jasoz ditzakete Udaleko Kirol Zerbitzuan, 943 77 91 67 telefono zenbakian.

ETXAGI
JATEXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 943 76 53 12

IBARGYREN PENTSYAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

PANA DE ROKUA
JATEXEA

Asteburuetan bertako
babak eta saibeskia

SALBADOR 10 ELGETA
Tf. 943 76 82 73



Bigarren erregionaleko futbol taldeak Idiazabalen aurka jokatuko du zapatuan.

IÑIGO ZAITEGI

Bigarren erregionaleko futbol taldea igoeraren bila

Bigarren maila erreregionaleko futbol taldeak Idiazabalen aurka jokatuko du zapatuan Ipintzan, 17:45ean. Karlos Lasaren taldeak aurreko astean ekin zion igoera fasea jokatzeari, eta mahoneroek 1-0 galdu zuten Pasaian. Igoera fasean bi multzotan banatutako 16 talde ari dira. Multzo bakoitzeke lehen biek lortuko dute lehen erre regional maila-

rako igoera. Karlos Lasaren arabera, "ligaska zaila izango da, baina igoera lortzeko itxaropena daukagu". Bergarak ez du oraindik etxetik kanpo partidurik irabazi. Datorren astean Bergarak eta Antzuolak indarrak neurtuko dituzte Estalan.

BERGARA-SESTAO

Bestalde, hirugarren mailan, Bergarak Sestaoren bisita ja-

soko du zapatuan, 16:00etan. Joan zen domekan Bermeori 0-1eko emaitzarekin nagusitu ondoren, mahoneroak sailkapeneko 9. tokian dira, 29 punturakin. Sestao, aldiz, ligako talderik indartsuenetakoa dugu eta sailkapenean bigarren dago, Lemoa liderraren atzetik. Joaneko partiduan, Las Llanasen, Bergarak 2-1 galdu zuen.

karteldegia

FUTBOLA

Bergara-Urki

Bigarren mailako kadeteak
Zapatua, 11:30. Ipintza

Bergara-Sestao

Hirugarren maila
Zapatua, 16:00. Agorrosin

Bergara-Idiazabal

Bigarren mailako erre regionala
Zapatua, 17:45. Ipintza

Bergara-Orioko

Lehen mailako jubenilak
Domeka, 10:00. Ipintza

Bergara-Euskalduna

Ohorezko jubenilak
Domeka, 11:45. Ipintza

ESKUBALOIA

Bergara-Aloña Mendi

Kadete mutilak
Zapatua, 17:45. Kiroldegia

SASKIBALOIA

Bergara-Errenteria

Senior mutilak
Zapatua, 16:00. Kiroldegia

PILOTA

UDABERRIKO TXAPELKETA

Bergara-Bearzana (kadeteak)
Aurretik pilota eskolako partidua bat jokatuko da
EUSKAL LIGA

Bergara-Añoaga

(jubenil banaka)

Bergara-Paz de Ziganda

(seniorrak)

Gaur, egubakoitza, 19:30ean

Udal Pilotalekuan

DEBA ARROKO TXAPELKETA

Bergara-Antzuola

(kadete eta jubenilak)

Martitzenean, 19:30ean, Udal

Pilotalekuan

iRUDI
Erloju denda
Bitxitegia
Ibargarai, 2
943 6 51 65

IRURAK PINTURAK S.L.
ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA
AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
FAXA: 943 76 09 32

ile apaindegia
eder gela
disdira
Masterreka, 7 • Tf. 943 76 00 55

GURIDI altzariak
Era guztietako altzariak
Artekalea 8 Tf. 943 76 31 02

ETXE BERRIA
ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA
Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

Ganbara
TABERNA
Heure erara ibiltzeko!
Irala z/g. Tf. 943 76 55 75



Labegaraietako futbito txapelketa

EMAITZAK

A MULTZOA

Apa Oxemai-Buya	0-3
Bar Ugarte-Torrekua	6-2
Irubide-Amoskibar	2-8
Bar Canalejas-Fac	1-9
Bildurbarek-Errotagain	2-9
Pagomendi-Eri	4-4

B MULTZOA

Agirrebeña-Pinturas Bergara	0-3
Etengabe-Cine Bank Irimo	7-4
Aluminios Kresala-Agirrebeña	3-0

C MULTZOA

Txipiron-Ezinleike	16-1
--------------------	------

PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

9:30: Cine Bank Irimo-Amilotx	Vacalouras
10:30: Vacalouras-Aterpe	Amilotx
11:30: Fac-Apa Oxemai	Ezinleike
12:30: Ezinleike-Artusamak	Fac

ZAPATUAN, KANPOAN

18:00: Latex-A Ze Flaxa	Etengabe
19:00: Bayer-Etengabe	A Ze Flaxa

DOMEKAN, BARRUAN

9:30: Patxaran Team-Txipiron	Shaktale
10:30: Shaktale-Guadalest	Txipiron
11:30: Kanpazar-Agirrebeña	Errotagain
12:30: Errotagain-Canalejas	Kanpazar
16:00: Alum. Kresala-Pintur. Bergara	Amoskibar
17:00: Amoskibar-Bar Ugarte	Torrekua
18:00: Torrekua-Pagomendi	Bildurbarek
19:00: Eri-Bildurbarek	Pagomendi

ARGI!

Mo(ko)lotov taldea kanporatua

Mo(ko)lotov taldea kanporatua dute, Artusamak taldearen aurka jokatu beharreko partidura ez aurkezteagatik. Mo(ko)lotov eta Manitouko jokalariek ezin izango dute beste talderen baten jokatu aurretik.

Bi talde zigortuta

Agirrebeña jabetzea taldeari astebukaera jokatu eta bi partidua galdutuz eman zaizkio. Gauza bera gertatu zaio Apa Oxemai taldeari, izena eman barik zuten jokalariek jokoan jartzeagatik, hain zuzen.

Bar Ugarte, Eri, Txipiron

Bar Ugartek lidertzeri eusten dio. Erik Pagomendiren aurka berdindu zuen eta Txipiron badirudi sasoi onean dagoela, 16-1 irabazi zion eta Ezinleikeri.



GORA eta BEHERA



Canalejas, Irubide, Bildurbarek

Canalejas-ek Fac taldearen aurka galdu zuen (1-9). Errotagainen erraz irabazi zion Bildurbarek-i (9-2) eta Irubidek ere galdu egin zuen Amoskibarren kontra.

SAILKAPENA

A multzoa

	P	J
1. Bar Ugarte	33	12
2. Errotagain	25	12
3. Pagomendi	23	12
4. Bildurbarek Opel Lam	22	12
5. Bar Canalejas	22	12
6. Amoskibar	21	12
7. Fac	16	11
8. Eri	13	12
9. Buya	10	12
10. Apa Oxemai	7	12
11. Irubide jabetxea	7	11
12. Torrekua	6	12

B multzoa

	P	J
1. Aterpe	28	10
2. Orzi	24	10
3. Kanpazar Harrobia	22	10
4. Aluminios Kresala	20	10
5. Pinturas Bergara	16	10
6. Amilotx	16	10
7. Bayer	9	10
8. Vacalouras	7	10
9. Eengabe	7	10
10. Cine Bank Irimo	4	10
11. Agirrebeña jabetxea	3	10

C multzoa

	P	J
1. A Ze Flaxa	24	10
2. Mongatxurak	21	10
3. Artusamak	19	9
4. Komando Piperrak	19	9
5. Guadalest	15	9
6. Shaktale	13	9
7. Txipiron	10	9
8. Patxaran Team	4	9
9. Ezinleike	3	8
10. Latex	-2	9

Informazio hau babesle hauei esker:



BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza
2A behea ezkerre.
Tf. 943 76 71 19



OGIZUN
koop. elk.
okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13

mahoneroak



MIGUEL ANGEL SANZ
BKEko zuzendaritzakoa

Domekan, Bermeoren kontrako partiduan, zorte pixka bat izan genuen gola sartzerakoan. Gorka San Vicentek jaurtitako falta baten ondorioz, Bermeoko jokalaria batek bere atean sartu zuen baloia, partiduko lehen ordu laurdena betetzear zela. Bermeok ez zuen gauza handirik erakutsi eta gol aukera gutxi izan zituen. Merezita irabazi genuen partidua.

Gure entrenatzaileak ondo planteatu zuen partidua eta, gola lortu ondoren, defentsan lan aipagarria egin zuten jokalariek. Bigarren zatian, Luis Blanco eta Mikel Osoro Koldo Erostarbe eta Etor Laskurainen orde zela iratu ziren. Defentsa sendotu egin zuen entrenatzaileak eta talde guztiak lan bikaina egin zuen, primeran borrokatu zuen. Josetxok bigarren gola egiteko aukera izan zuen kontraerasoan.

Zapatuan, Sestaoren aurka, zaleen laguntza ezinbestekoa izango da, talde indartsua dute eta. Gure liga 9. postutik behera jokatzen da eta etxeko partiduei etsi behar diegu.

Otsein Saria

Sailkapen orokorra:
Aritz Arabiourrutia.....10 puntu
Txonan Gallastegi.....7 puntu
Koldo Erostarbe.....6 puntu
Josetxo Lizarralde.....6 puntu
Arkaitz Arana.....6 puntu
Etxeko partidua bakarrik hartzen dira kontuan.

GASTON Y DANIELA



Kruz Gallastegi 3 ☎ 943 76 07 37

BERGARA

Inglesina



Banatzaile ofiziala

BERGARA

**Gaur, urtarrilak 26,
Bergarako dendaren inaugurazioa 19:00etan**

tatoosagarriakbodypiercing

arropainetakoak

Telesforo Aranzadi, 2. BERGARA. Zarugalde, 14. ARRASATE.



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

bonofotoa

Zein kaletatik abiatzen dira argazkian ikusten diren eskailera maila horiek?

galde debalde

1. Zertarako antolatu du udaleko Ongizate Zerbitzuak emakumeendako gunea?


- A- Harreman ingurua zabalatzeko
- B- Hainbat ekintza antolatzeko
- C- Ondo pasatzeko

2. Zein urtetakoa da Santa Katalina ermitari buruz dagoen lehen aipamena?

- A- 1468. urtekoa
- B- 1469. urtekoa
- C- 1701. urtekoa

3. Norekin hasi zen antzerkian Edurne Azuara bergarar aktorea?

- A- Pedro Mugikarekin
- B- Mireia Gabilondorekin
- C- Mikel Laskurainekin



Aurreko aleko saria **Florentina Ugalde**arentzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Florentinari!

Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:
Bonofotoa: **Taberna**
Galde Debalde: **1-A, 2-B, 3-A**

Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du **BERRIGARAK** asmatzaileon artean!

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____ Telefonoa: _____

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! **SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!**

Bilore
maleta bat (15 ontzitxo) garbigarri
299 PTA!

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

Edurne Azuara, aktorea

«Aukeratzen banaute, ilusio handiz arituko naiz 'Hasiberriak' telesaillean»

Edurne Azuara gazteak Hasiberriak, ETBko telesail berriko protagonista izateko aukera asko ditu. Bost pertsonaia nagusi izango ditu telesailak. Oraindik erabaki barik daude. Datorren astean jakingo du Edurnek pertsonailetako bat berari egokitu zaion.

G. Nolatan telesail baten parte hartzeko nahia?

E. Pedro Mugikarekin egindako ikastaro baten hasi nintzen aktore lanari gustua hartzen. Orain, Basauriko Antzerki Eskolan ari naiz ikasten. Pausokatik etxera deitu ziguten antzerki eskolako hainbat ikasleri, eta castingera aurkeztu ginen.

G. Zelan izan zen *castinga*?

E. Euskaldunan egindako *castinga* joan nintzen.

Mila eta piku lagun aurkeztu ginen. *Casting*erako hainbat mahai jarri zituzten, eta mahai bakoitzaren aurretik pasatzean gauza ezberdin bat egin behar izan genuen: batean fisikoa begiratzen zuten, bestean esperimentiaz hitz egin...

Horrela, frogarik froga ibili gara. Orain, pertsonaia bakoitzerako bi aktore posible gaude. Eta datorren astean jakingo dugu bietako nor aukeratzen duten.

G. Zein pertsonaia antzeztuko duzu aukeratzen bazaituzte?

E. Ezer gutxi dakit. Neska gazte bat antzeztuko dut, unibertsitatean turismoa ikasten eta, aldi berean, taberna baten lanean ari dena. Kanpoaldetik itxura alaia du, baina barrualdean borroka latza du. Gainera, mutil-laguna dauka, baina

denboran atzera izandako beste mutil lagun batekin asko gogoratzen da.

G. Zenbat kapitulu izango ditu?

E. 70 kapitulu izango dira; bakoitza 25 minutu ingurukoa eta egunero. *Goenkale* antzera. Izan ere, *Goenkale*ko gazteak izango gara, baina unibertsitate heltzen direnean.

G. Pertsonaia bakoitzerako bi lagun zaudete. Aukeratuko zaituztela uste duzu?

E. Beste neska ezagutzen dut, Miss Gipuzkoarako finalista izan da, eta oso neska polita eta atsegina da.



Basauriko Antzerki Eskolan ikasten du Edurnek.

Oraingoz, %50eko aukera daukat. Baina, ikusiko dugu. Nik ilusio handia daukat, baina baita ezinegona ere.

Sei taldek jokatu dute 'Bergara ezagutzen' lehiaketa

Datorren egubakoitzean, hilak 2, hasiko da Jardunek antolatutako 'Bergara ezagutzen' lehiaketa. Sei taldek parte hartuko dute: Petu Petuan taldeak, 15 jokalarirekin; Hik Galdeu taldeak, 15 jokalarirekin (iaz-

ko irabazleak); 1. Batxilergoak, hamabostekin; 3. DBHk, hamabostekin; Txapuzeruak, hamabostekin; eta Perretxikuak Jardunian, hamalau lagunekin.

Lehiaketa egubakoitzero jokatu da, 19:30ean.

Gainditu beharko dituzten arloak hauek dira: Bergarako euskalkia, natura eta ingurunea, kultura, historia eta artea eta kirolak. Talde bakoitzak 18 galdera erantzun beharko ditu, atal bakoitzeko hiru. Bestalde,

proba grafikoak ere egongo dira: monumentu, paisaia eta abarren argazkiak identifikatzea, esaera zahar edo abestien bukaera osatzea eta plano edo mapa baten markatutako kale edo lekua identifikatzea.

Sukaldeko altzarien eta horma-armairuen fabrika

Super
Armeko

- Lantegiko prezioak
- Erakusleku handia: 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Nobedade denak

Kataide poligonoa, 6. pabilioia.
ARRASATE. 943 71 25 08



Urteaga 9
Tf. 943 76 18 45



Parteittin, 1969. urtean

J oan zen domekan San Bizente eguna ospatu zuten Angiozarko Parteitti auzoan. Urtero moduan giro ezin hobea izan zen, eta jende asko joan zen mezara eta ondorengo erromeriara.

Aste honetako erretratua 1969koa da, eta orduko erromeriako gazteak agertzen dira bertan, abarka eta guzti. Beste garai batzuk ziren... Orduan familiakoak eta lagunak

baserrian bazkaltzera gonbidatzeko ohitura ei zegoen. Antza denez, Arregi baserriko Sebastian Aldai soinu-jole aritu zen urte hartan, giroa alajitzen. Hauek dira ermitaren ondoan ateratako argazkian agertzen direnak, ezkerretik eskumara:




Goian: Juanita Orbegarai, Maria Jesus Altzuaran, Arantzazu Narbaiza, Josefina Arregi, Begoña Jorkena, Mila Alzuaran, Ba-

silio Orbekotxo, Juan Jose Zabarte, Mari Sol Aldai eta Luisito Iruain.

Aurrerago: Florita Altzuaran, Jose Mari Zabarte, Irene Altzuaran, Itziar Zabarte eta Jesus Aldai.

Makurtuta: Juan Ignacio Zabarte, Begoña Zabarte, Maria Jesus Zabarte, Joxe Aldai, Beatriz Altzuaran eta Sebastian Aldai.

Argazkia: Maria Jesus Ugarte.

-  Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
-  Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!
-  Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!

LARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

Tf. 943 76 16 63

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldeko erreforma,
pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59



zumelaga

JATETXEA

58 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

Urtarrilaren 8ko zozketa

100.000 pezetako 3 erosketa-bono

Zorionak denoi!



Sariak banatu dituzten komertzioak:

Jose Luis Leturia harategia

Ana Laskurain fruta denda

Yoar oinetako denda

Irabazleak:

Ester Barrero

Tomasa Zangitu

3.a ez da agertu

Jokaldirik onena!



BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA MATRIKULALDIA ZABALIK

**Alfabetatze, euskalduntze eta
EGA ikastaroak (otsaila-ekaina)**

IZENA EMATEKO EPEA

urtarrilaren 22tik otsailaren 2ra
16 urtez gorakoendako

BULEGO ORDUTEGIA

goizez, 08:30etik 12:30era
arratsaldez, 14:30etik 18:30etara

**BEKATZE SISTEMA ETA
DIRU LAGUNTZAK DAUZKAGU!**

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Zabalotegi, 13 • BERGARA • Tel.: 943 76 44 53
Posta elektronikoa: berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

Urrun heldu al daitezke enpresak garraio zerbitzu aurreratu bat gabe?



EZ

Begiratu Europa berriari eta merkatu bakarra ikusi. Herrialde bakar bat balitz bezala erantzuteko ahalmena duen garraio sare batekin.

Begiratu etorkizunean pentsatzen duten enpresei. Ikusi jada eskatzen ari direla lojistika eta garraiorako aukera berriak. Eta erantzun egokiena eman.

Begiratu ekonomia berriari. Eta ikusi garraioa eta distribuzioa ezinbestekoak izango direla. Nola hitzegin genezake Internet-en bidezko salerosketetaz, primerako garraio zerbitzu bat gabe?

Hauek dira, **Guipuzcoana, Deutsche Post Euro Express** taldean sartzeraz bultzatu duten arrazoiak, Europako garraio eta distribuzio sare aurreratu baten partaide izateko: **Euro Express**.

Emaitzak bidean daude.

